

## Aldi baterako irakasle-ikertzaileak: asteazkenean hitzordu bat daukagu seiurtekoak eskatzeko eskubidearen alde



Abenduaren 16ko mezuan jakinarazi genizuenez

(<https://labehu.eus/blog/seiurtekoak-labek-bultzatutako-epaiaren-sententzia-aldekoa/>), seiurtekoak eskatzeko eskubidea lortzetik gertuago gaude. Hala ere, EHUKo zuzendaritza zein Eusko Jaurlaritza zuen kontrako diskriminazio hau mantentzen tematzen dira.

Hori dela eta, **asteazken honetan, urtarrilaren 11, 12:30etan, elkarretaratzea egingo dugu Eusko Jaurlaritzaren aurrean** (Donostia kalea 1, Gasteiz; bus geltokiaren atzean). Borroka luze honetan, **kaltetuak zaretenon parte-hartzea ezinbestekoa da**. Horregatik diskriminazio honekin bukatzeko eskatzeko elkarretartzera hurbiltzeko deia egiten dizuegu. Arabako campusetatik kotxeetan joateko antolatuko gara (jarri zaitez gurekin harremanetan: [lab.gasteiz@ehu.eus](mailto:lab.gasteiz@ehu.eus) ).

**Seinala ditzagun diskriminazio hau mantentzearen erantzuleak!**